

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Behin betiko onartzea zerbitzuen eta administrazio jardueren tasak eta prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa

Espediente horri alegaziorik jarri ez zaionez, argitaratu egiten da, indarrean jar dadin.

Zerbitzuen eta administrazio jardueren prezio publikoak arautzen dituen ordenantza

1. artikulua

Arratzu-Ubarrundiako Udalak, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 43. artikulua aitortzen dizkion eskumenak baliatuz, zuzenbide publikoko araubidearen barruan ematen dituen zerbitzuen eta jardueren prezio publikoak ezartzen ditu, baldin eta, zerbitzu edo jarduera horiek sektore pribatuak ere eskaini arren, administratuek beren borondatez eskatzen dituzten kasuetarako, ordenantza honetan xedatutako moduan, zeinaren zati baitira.

2. artikulua

Ordenantza hau Arratzu-Ubarrundiako udalerrri osoan aplikatuko da.

3. artikulua

Arau honetako prezio publikoak zerbitzuen edo jardueren onuradunek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua

Arau honetako prezio publikoen tarifak eranskinean daude jasota.

5. artikulua

Kopuru horiek, eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira, eta ezingo dira murriztu epigrafeetan azaltzen diren zenbatekoak, hobariak edo salbuespenak ematen direnean izan ezik.

6. artikulua

Arau honetako zerbitzu edo udal jarduerak jaso ahal izateko, aurrez horien eskaera egin beharko zaio Arratzu-Ubarrundiako Udalari. Zerbitzu edo jarduera horiek emanda daudela ulertuko da, edonola ere, arau honetako prezio publikoak ordaintzeko baldintzaren pean, eta luzatu ondoren, prezio publikoa ez ordaintzeak automatikoki ekarriko du zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea.

7. artikulua

Arau honetako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua ematen den edo jarduera hasten den unean sortuko da.

Hala ere, dagoeneko emanda edo luzatuta dauden zerbitzu edo jarduerak izanik, ordaindu beharra sortzen da dagozkien tarifetan adierazten diren aldietako bakoitzaren lehenengo egunean.

8. artikulua

Honela ordainduko dira prezio publiko horiek:

a) Urte osoko zerbitzuen eta jardueren kasuan, matrikuletan sartu ondoren, urtean behin.

b) Hiruhileko zerbitzuen edo jardueren kasuan, bi ordainagiri jaulkiko dira: bat lehen hiruhilekoko eta beste bat bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako.

c) Lekuen alokairuen kasuan, dagozkien ordainagiriak jaulkiko dira: egun, hilabete, hiruhileko edo urtekoak.

9. artikulua

Dagokion zenbatekoa itzuliko da jarduera egiten ez bada eta ez egitearen arrazoiak ezin bazaizkio egotzi prezio publikoa ordaintzeko obligazioa duenari.

Aitzitik, ordaintzea dagokionak jardueran, ikastaroan eta abar baja ematen badu, edozein delarik ere horretarako arrazoa, ez zaio itzuliko ordaindutako prezioa.

10. artikulua

Prezio publiko horiek ez ordaintzearen zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

Eranskina

A. Kirol instalazioak erabiltzeko prezio publikoa ordaintzea

Oinarrizko harreman gisa ezartzen diren erabilera motak:

- Derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatuek gorputz hezkuntzako eskolak emateko instalazioak.

- IGEek eta kirol entitateek eskola kirola egiteko instalazioak.

- Kirol lehiarako eta kirola sustatzeko instalazioak.

- Erabiltzaileen kirol ez gidaturako instalazioak.

- Kirol entitateek beren bazkideei eskainitako kirol jardueretako instalazioak edo, antolamendu gaitasuna bermatuta egonik, herritarrei eskainitako kirol jarduera irekietarako instalazioak.

- Erakundeek edo ezinduen elkarteek, gizarte edo osasun helburuak ardatz, antolatutako jarduera fisiko zein aisialdikoetarako instalazioak.

- Ikastetxeen edo kirol federazioetako kide diren elkarten prestakuntza programetarako instalazioak.

- Hezkuntza entitateek irakaskuntza arautu ez derrigorrezkorako antolatutako prestakuntza moduletarako instalazioak.

- Tradiziozko jaiekin zerikusia duten jarduera edo egintzak prestatzeko edota eskaintzeko instalazioak.

- Aisia topaketak eta/edo lehiaketak egiteko instalazioak. Horrelakoetan, antolatzaileek kudeatzeko gaitasuna bermatu beharko dute, kirol sustapeneko proiektu bat aurkeztu beharko dute, bertan zehaztuta kirol sustapenaren helburu espezifikoak, eta garrantzi soziala arrazoitzen duen agiri bat.

Prezio publikoen alderdi orokorrak

- Prezio publikoek ez dituzte barnean hartzen muntaketa lanak edo aparteko prestatze lanak.

- Prezio publikoak ordaintzeak ez du ahalbidetzen ez publizitatea jartzea, ez hirugarrenei sarrerak kobratzea, ez salmentarako postuak jartzea.

- Prezio publikoek ez dute beren baitan hartzen dagokion kirolerako materiala, ez eta udalaren beste ezein material ere..

I. Lekuak erreserbatzea

I.1 kirol aretoak:

KANTXA		
Alokairua, hezkuntza saila		30.000 euro
Kantxaren 1/3 alokatzea	Erroldatuak	7 euro orduko
	Erroldatu gabeak	10 euro orduko
Kantxa osoa alokatzea	Erroldatuak	12 euro orduko
	Erroldatu gabeak	16 euro orduko
Prezio horiei orduko 3 euro gehituko zaie argien kontzeptuan <u>Denboraldiko erreserba.</u> Kantxa osoaren alokairua denboraldi osorako bermatuz gero, prezioa 11 euro orduko izango da, gehi argien 3 euro orduko, horiek erabili behar izanez gero. <u>Alokairuak.</u> Alokairuei ehuneko 21eko BEZa aplikatuko zaie.		
Beste aretoak	Erroldatuak	20 euro orduko
	Erroldatu gabeak	25 euro orduko

I.2. kiroltarako ez diren aretoak:

Erabilera askotarako aretoa	Erroldatuak	20 euro orduko
	Erroldatu gabeak	25 euro orduko
Bulegoak	Erroldatuak	10 euro orduko
	Erroldatu gabeak	15 euro orduko

*. Prezio horiek bikoiztu egingo dira matrikula edo dirua kobratzen den ikastaro edo jardueretarako erreserbak badira. Gainera, jarduera atezaintzaren ohiko ordutegitik kanpo egin nahi balitz, atezaintzaren aparteko orduen kostua gehituko litzateke.

I.3. beste instalazioak:

GIMNASIOA	
Eguneko sarrera	3 euro
Hileko bonua	15 euro
Hiruhileko bonua	50 euro
Asteburuetakoa bonua	100 euro
Urteko bonua	180 euro
ROKODROMOA	
Eguneko sarrera	2 euro
Hileko bonua	10 euro
Hiruhileko bonua	28 euro
Urteko bonua	80 euro
Arnesa alokatzea	1 euro

II. Instalazioak erabiltzea ekitaldi berezietarako

II.1. Xedea

Prozedura honen xedea da erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta baldintzak normalizatzea, instalazioak erabiltzeko kultura jarduera, kirol ikuskizun berezi edo kirolaz kanpoko jardueretarako.

Pertsona fisiko edo juridiko, kirol elkarte eta aitortutako beste entitateek instalazioak erabiltzeko eskubidea dute, eguneroko kirol jarduneko ekintza desberdinetarako, baldin eta, arategi hau betez, erabileraren tasak ordaintzen badituzte.

II. 2. Erreserben prezioak, mota hauen arabera:

- Kirol ekitaldi ireki bat antolatzen duten irabazteko xederik gabeko kirol erakundeak, baldin eta bere egiturapean antolatutakoa ez bada eta/edo zehaztutako helburua ez lortzeko arriskua badu.
 - Diru baliabideak lortzeko helburu ekonomikoarekin, sustatzaile lanetan diharduten kirol entitateak.
 - Talde politikoek bilerak edo sindikatuen bilkurak edo batzarrak.
 - Enpresek eskainitako jarduerak, herritarrei irekiak.
 - Beren gizarte xedearekin zerikusirik ez duten kirol ekitaldiak edo kirolarekin zerikusirik ez duten ekitaldiak sustatzen dituzten kirol entitateak.
 - Alderdi politikoek edo sindikatu elkarteek mitinak edo biltzarrak.
 - Gizarte jarduerak
 - Bestelako kirol, kultura, hezkuntza jarduerak eta abar.
 - Orduko: 60 euro, 100 pertsona arteko edukiera.
 - Orduko: 100 euro, 101 pertsona edo gehiagoko edukiera.
 - * Bermea: 550,00 eurotik 3.200,00 eurora bitartean.
- (* Inguruabarren arabera (iraupena, intentsitatea edo arriskua)

II. 3. Aprobetxamendua eta zerbitzu bereziak:

Instalazioa kontratatu duen enpresaren kontura izango dira hauen guztien gastuak: oholda, kantxa babesteko bilkariak eta aulkiak jartzea eta kentzea, materialen leku aldatze eta garraio kostuak, garbiketa lanak (ekitaldiaren araberrakoak) eta beste zerbitzu batzuk.

III. 4. Salbuespenak

Ohiz kanpo, euskara, kultura eta kirol zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez, prezio publikoen eta/edo bermearen salbuespena eman liteke erreserba berezietarako, kasu hauetan:

- Onura publikoko aitortuta dauden irabazteko xederik gabeko entitateek eskatutako erreserbak.
- Beren ezaugarri bereziengatik, gizarte, kultura edo kirol arlokoak izanik, udalerrientzat edota bertako biztanleentzat interes handiko jotzen diren ekitaldi edo gertaerentarako erreserbak.

B. Ludoteka zerbitzua.

Ezinbestekoa da kuota ordaintzea udal ludoteka zerbitzuko bazkide izateko eta hartaz gozatzeko. Txandak denboraldi eskaintzen dira, irailean, eta hurrengo urteko ekainera arte egoten dira indarrean.

Hona hemen udal ludoteka zerbitzuaren prezio publikoak:

Urteko bonua	50 euro
Eguneko sarrera	3 euro

Aplikazio arauak

Bonuak instalazioak erabili aurretik ordainduko dira.

Urteko bonuak ordainduko dira ezarritako kuota udalak horretarako duen kontu korrontean sartuta, zerbitzua erabili aurretik.

Eguneko sarrerak atezaintzan ordainduko dira, sartu baino lehen.

Kuota ordaindu eta gero plaza eskaerari uko egiten bazaio, ez da itzuliko ordaindutako zenbatekoa.

Kuota arauzko epe barruan ordaintzen ez bada, umeari automatikoki baja emango zaio ludotekako bazkideen zerrendan.

C. Jarduera, tailer, ikastaro eta abarren prezio publikoa.

c.1 Jarduerak eta ikastaroak denboraldi eskaintzen dira, irailean, eta haien prezioak hurrengo urteko irailera arte egoten dira indarrean.

c.2 Jarduera horietarako eskaerak eta izen emateak udaletxean egin behar dira.

c.3 Izena eman aurretik bete behar dira prezio normal edo murrizturako eskubidea izateko eskatzen diren baldintza guztiak.

c.4 Jardueretan sartzea zuzenean izena emanez egingo da, eta izena emandako hurrenkeran.

c.5 Jarduera ordainduko da bankuko kontuan diru sarrera eginez.

c.6 Prezio murriztua ordaindu bada, onuradunak zentroko bulegoetan egiaztatu beharko du murrizketa egiteko arrazoia, izena eman eta bi eguneko epean, eta dagozkion agiriak aurkeztu. Izapide hori betetzen ez bada, izena eman den plazarako eskubidea galduko da eta udalak itzuli egingo dio ordaindutakoa interesdunari, hala eskatzen badu.

c7 Urtean zehar antolatzen diren jarduera eta tailerrek berariazko prezioa izango dute, eta jardueraren edo tailerraren kostuaren arabera finkatuko da.

c.8 Ondoko taulan jasotzen dira prezio publikoak:

Prezioen zerrenda:

OHIKO JARDUERAK EDO IKASTAROAK		
Ikastaro jakin batera joatea		3 euro
Ikastaro ordu bakoitzeko		20 euro/hiruhilekoa
Jarduera edo ikastaro bereziak		Prezioa ikastaroaren edo jardueraren kostuaren arabera finkatuko da.
Tailer puntualak		Prezioa tailerraren kostuaren arabera finkatuko da.
UDALEKUAK		
Uda	Hamabostaldi 1	Erroldatuak: 40 euro / Erroldatu gabeak: 45 euro
	Hilabete osoa	Erroldatuak: 75 euro / Erroldatu gabeak: 90 euro
Eguberriak		Erroldatuak: 20 euro
		Erroldatuak 25 euro
Udaberria		Empadronados 12 euros
		No empadronados 18 euros

C.9. Hobariak eta salbuespenak.

1. Erroldatuei ehuneko 25eko hobaria aplikatuko zaie prezio hauetan:

- Gimnasioko asteburuko, hiruhileko eta urteko bonuak.
- Rokodromoko hiruhileko eta urteko bonuak.
- Ludotekako urteko bonua.

2. Hiruhileko bi jarduera edo ikastarotan edo gehiagotan izena ematen duten pertsonak ehuneko 20ko hobaria izango dute ezarritako prezioetan. Hobari hori jarduera guztiei aplikatuko zaie.

3. 8.000 eurotik beherako diru sarrerak egiaztatzen dituzten familia unitateek prezio publikoaren ehuneko 80ko hobaria izango dute izena ematen duten jarduera edo tailerretan.

4. 8.000 eurotik gorako eta 10.000 eurotik beherako diru sarrerak egiaztatzen dituzten familia unitateek prezio publikoaren ehuneko 50eko hobaria izango dute izena ematen duten jarduera edo tailerretan.

5. Familia ugariak ez dituzte ordainduko hirugarren eta hurrengo umeengatik dagozkien prezio publikoak, baldin eta umeak jarduera, ikastaro, udaleku, tailer edo bestelako berean inskribatzen badituzte. Salbuespen hori umeak adindun izan arte aplikatuko da.

Interesdunek eskatu beharko dituzte hobari eta salbuespen guztiak, jarduera, ikastaro, tailer edo udalekuetan izena ematen duten unean; hau da, udalak ez ditu aplikatuko ofizioz.

2. eta 3. idatz zatian ezarritako hobariak gozatzeko, familia unitatearen diru sarrerak egiaztatu beharko dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztuz edo, horren faltan, T.10 inprimakia edo diru sarreraren ziurtagiria, Lanbidek egina.

D. Aulkiak eta/edo oholtza mailegatzea kontzejuei, udalei, elkarteei eta antolamenduei, Sologana zentrotik kanpo erabiltzeko.

Kontzejuei, udalei, elkarteei eta antolamenduei aulkiak eta oholtza mailegatu ahal izango zaizkie jaiak, kultura ekitaldiak eta abar egiteko, aurrez eskatuta eta 100 euroko bermea jarrita, materiala behar den moduan itzuliko dela bermatzeko.

E. Materiala mailegatzea Sologana zentroan bertan erabiltzeko.

Eskatuz gero, partikularrei alokatu ahal izango zaizkie aulkiak eta mahaiak, baina material hori ezingo da zentrotik atera.

Maileguaren prezioa:

1 euro aulki bakoitzeko

10 euro mahai bakoitzeko

Bermea:

100 euroko bermea jarri beharko da, alokatutako materiala behar den moduan itzuliko dela garantizatzen.

Azken xedapena

Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu ostean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da berariaz aldatu edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Denek jakin dezaten argitaratzen da, eta jakinarazten honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian jar daitekeela, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Dura, 2016ko irailaren 27a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE